

B euskararen BERRIPAPER

Euskal Herriko II. Soziolinguistikazko Inkesta 1996

Euskal Herriko II. Soziolinguistikazko Inkesta elkarlanaren ondorio da; hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak hartu dute parte horretan. Inkesta, aurten argitaratu dena, 1996an egin zen, eta 1991n egindako Euskal

Herri osoko lehen inkesta osatu ezezik, hainbat ezaugarri aztertzeke aukera ere ematen du: ama-hizkuntza, euskararen galera-irabaziak, familia bidezko transmisioa, nortasuna, euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak eta, azkenik, euskara hainbat eremutan


erabiltzeko gehien eragiten duten faktoreak.

15 urtetik gorako biztanleei zuzendutako laginak 6.359 inkesta bildu ditu: Euskal Autonomi Elkarteetan 3.459 inkesta, Nafarroan 1.464 inkesta eta Iparraldean 1.400. Laginen diseinua eta prestakuntza Euskal Estatistika Erakundeak

(EUSTATEk) egin du Euskal Autonomi Elkarteetan. Iparraldean, berriz, Institut National de la Statistique et des Études Économiques (INSEE) Institutua arduratu da eta Nafarroan, azkenik, Nafarroako Gobernuko Estatistika Atala.

S U M A R I O A

- 1** Euskal Herriko II. Soziolinguistikazko Inkesta 1996
- 4** Europako dirulaguntzak Euskal Astea
Korrika: 10 urte




Euskal Herriko II. Soziolinguistikazko Inkestaren emaitza nagusiak euskaraz, gazteleraz eta frantsesez eman dira argitaratu.

Euskal Autonomi Elkarteetan euskararen galera gelditu egin da eta familia bidezko transmisioa hazi. Euskarak hiztun asko irabazi ditu; euskararen erabilerak, halaber, gora egin du seme-alaben artean, lagunartean, lanean eta eremurik formalenetan.

II. Inkesta honek, alderdi hauen berri izateko aukera ematen digu:

Hizkuntza-gaitasuna Euskal Herrian (%)




Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta


Lau hiritarretik bat elebiduna da Iparraldean (% 25,7) eta Euskal Autonomi Elkartearen (% 24,7); Nafarroan, berriz, proportzio hori hamarretik batera (% 9,4) jaisten da.

Euskara biziki eta etengabe ari da berreskuratzen Euskal Autonomi Elkartearen eta askoz ere motelago Nafarroan. Iparraldean, berriz, euskararen atzerakada etengabea da.

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera eta lurraldeka (%)



Euskararen erabilera eremuka Euskal Herrian (%)



Familian, gertuko komunitatean eta zenbait eremu formaletan euskaldunek euskara gehiago erabiltzen dute erdara baino.

II. Soziolinguistikazko Inkestaren ondorioak

Euskararen erabilerari dagokionez, azken urte hauetan euskara hezkuntza sisteman sartzearen ondorioz batik bat, asko hazi da elebidunen portzentaia Euskal Autonomi Elkartearen. Hazkunde hori, lagunarteko euskararen erabileran antzematen hasi da dagoeneko, gero eta handiagoa baita euskaldunen dentsitatea lagunartean. Familian, aldiz, ez da inolako hazkunderik antzematen euskararen erabileran, elebidun gazteenen gurasoak erdaldunak direlako oraindik. Horrenbestez, aurreikuspenen arabera, datozen hamar urteetan elebidun-kopuruak nabarmen egingo du gora, baita lagunarteko euskararen erabilerak ere, azken kasu honetan neurri txikiagoan bada ere. Aitzitik, ez dirudi familiaren barruan euskararen

erabileran hazkunde handirik izango denik, euskara ikasi dutenek gurasoen etxea utzi eta euren familia sortzen dutenean hasiko baita adinaren eragina antzematen. Nafarroan antzeko joerak ageri dira hezkuntza sistemaren bilakaerari, familia bidezko transmisioari eta hiztunak galtzeari eta irabazteari dagokionez, besteak beste. Hala eta guztiz ere, ezagutzaren hazkundeak ez du oraindik erabileraren hazkunderik eragin; alabaina, gazteen artean moteldu egin da azken urteotan erabileran gertatzen ari zen beherakada. Izan ere, Nafarroan euskara berreskuratzeko prozesua Euskal Autonomi Elkartearen baino txikiagoa da koantitatiboki eta berantiarra denborari dagokionez. Hala ere, azken urteetan antzeman

diren joeren arabera, hemen ere euskararen erabilera hazi egingo dela esan daiteke. Iparraldean bilakera soziolinguistikokoaren adierazle guztiek, familia bidezko transmisioak, galera-irabaziek, ezagutzaren bilakerak eta familia zein gertuko komunitateko erabilerak, euskararen etengabeko galera moteldu beharrean, areagotu egingo dela adierazten dute. Izan ere, adierazle horien arabera, euskara oso maila baxuetan dago hainbat esparrutan eta euskararen erabilera sustatzeko beharrezkoak diren neurriak premia hartzen ez badira, ezin izango da euskara gordetzeko edo bizirik iraunarazteko beharrezkoa den gutxieneko maila edo atalasea bermatu.

EUSKAL ASTEA

Euskal Herriko Unibertsitateko *Unibertsitateko aldizkaria. El Periódico Universitario* aldizkariak euskal astea antolatu du martxoaren 10etik 14ra bitartean, Leioako campusean. Antolatze-lanetan Sabino Arana Kultura Elkargoa izan du kide. Laguntzaileak, berriz, EHUko Kultura Hedakuntza eta Unibertsitate Zabalkuntzarako Errektoreordetza, Euskara Errektoreordetza, BBK, Deia eta Euskal Irrati Telebista izango ditu. Euskal astearen inaugurazio-ekitaldian, Mari Karmen Garmendia Kultura sailburuak eta Pello Salaburu, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak, parte hartuko dute. Egitarau betea prestatu da, egunero goizeko 10.00etan hasi eta arratsaldeko 18.00ak bitartean gutxi gora-behera. Bost egunetan zehar egingo diren mintegi, mahainguru eta hitzaldietan oso gai desberdinak jorratuko dituzte: euskararen erabilpena eta II. Soziolinguistikazko Inkesta,

euskararen norabidea, euskal unibertsitatea, euskaldunak eta aberria, euskara eta komunikabideak, gazteen partaidetza euskara sustatzeko, etab. Besteak beste, ondoko hizlari hauek hartuko dute parte: Hizkuntza Politikarako Sailordetzatik, Josune Ariztondo sailburuordeak, Xabier Aizpurua, Ikerketa eta Informaziorako zuzendariak eta Arantza Aurrekoetxea, Herri-administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak; Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saitetik, Inaxio Oliveri sailburuak eta Eneko Oregi sailburuordeak; Miren Azkarate, EHUko euskara erretoreordeak, Iñigo Camino, Sabino Arana Elkargoko zuzendariak eta Martxelo Otamendi, Euskaldunon Egunkariaren zuzendariak. Horrekin batera, erakusketak, filme-emanaldiak, txistua, trikitixa eta txalaparta entzuteko parada, bertso-saioak, eta sagardoa eta txakolina dastatzeko aukera ere egongo da.

Europako dirulaguntzak

Eremu urriko hizkuntzak sustatu eta babesteko Europako Batzordeari eskabideak aurkezteko epea apirilaren 15ean amaitzen da. 1995eko abenduaren 2an argitaratu zen deialdian, Europako Batzordeak zehaztu zituen dirulaguntzagaien artean, besteak beste, hauek aipatzen ziren: hezkuntza mailako proiektu pedagogikoak, argitalpenak, ikasmateriala sortzeko proiektuak, komunikabideetan eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko proiektuak, etab. Deialdi honetan parte hartzeko aurkezten diren proiektuek izaera europarra behar dute, hau da, gutxienez bi hizkuntza komunitate edo estatuak aurkeztuko dituzte proiektuak. Apirilaren 15a da 1997ko irailaren 15etik aurrera martxan jarriko diren proiektuak aurkezteko azken eguna. Gogoratu proiektuak Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren bitartez aurkezteko aukera dagoela. Informazio gehiago jasotzeko, erakunde honetara deitu. Tel.: 945 - 18 80 90.

korrika: 10 urte

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK-k) hamargarren Korrika antolatu du aurten. Martxoaren 14an hasiko da Arantzazun eta Bilbon bukatuko da hilaren 23an, Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren. Gau eta egun 2.100 kilometro baino gehiago eginez, adin eta mota guztietako milaka pertsonak parte hartuz, Korrikaren inguruan sortzen den mugimenduak euskararen erabilera normaltzeko neurriak areagotu beharra aldarrikatzen du. Arantzazu gune garrantzitsua izan da euskararen aldeko lanean: argitalpenak, ikerketak, eta euskara batuaren sorrerako lehen bilerak ere bertan egin zituen Euskaltzaindiak. Alabaina, lan hori guztia pertsona batengan zentratu dute, aita Luis Villasanterengan, hain zuzen. Berak eramango du lekukoa zero



Irudi honetan HABEren eta AEKren arteko hitzarmena sinatu zen ueña.

kilometroan. Aurreko Korrika guztietan bezala, aurtengoan ere Korrika Kulturala izango da. Mota guztietako ikuskizunak egongo dira: kontzertuak, bertso-saioak, hitzaldiak, antzezlanak, filme-emanaldiak, kirolak, etab. Aurten, Korrikaren inguruko informazioa Interneteko sarean jaso ahal izango da, baita Korrika 10erako Andoni Egañak idatzi eta Gozategik musikaturako abestia ere.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

.....

Helbidea:.....

.....

Herria:

Kodea:.....

Lurraldea:.....

Tel.:.....

